

IBILBIDEA



GAUR

Hazparne (Lapurdi)	05:37
Urko	06:13
Kanbo	06:25
Ezpeleta	07:13
Zuraide	07:37
Senpere	08:01
Azkaine	08:49
Urruña	09:49
Hendaia	10:37
Irun (Gipuzkoa)	11:20
Hondarribia	11:32
Irun	12:07
Katea, Irun	12:30
Oiartzun	12:47
Erretera	13:46
Lezo	14:25
Pasai Donibane	14:51
Pasai San Pedro	15:17
Pasai Antxo	15:37
Donostia	
Altza	15:49
Intxaurren	16:20
Egia	16:43
Gros	17:02
Alde Zaharra	17:20
Antigua	17:48
Zentroa	18:16
Amara	18:26
Astigarraga	19:12
Hernani	19:55
Goizueta	23:01

BIHAR

Leitza	01:08
Lekunberri	02:23
Urritza	03:22
Larrainzar	05:13
Arraitz	06:06
Olague	06:45
Zubiri	08:33
Uharte	10:01
Olatz	10:19
Agoitz	12:43
Noain	15:27
Zizur Txikia	16:15
Zizur Nagusia	16:21
Barañain	17:01
Iruñea	17:12
Antsoain	20:38
Txantrea	20:48
Burlata	21:03
Atarrabia	21:23
Arre	21:32

LEKUKOTZA Gari Berasaluze ■ IDAZLEA

Arrisku bizia, mirariak eta jendetza

Gau historikoa izan zen atzokoa Erriberaren ateetan. Herenegun eta bihar bezala, beste behin, euskaldun izan ziren inguru hauek. Lekukoa Tafallara iritsi baino zenbait ordu lehenago, herritar ugari atera zen autoa hartu eta Korrikaren bidera. Honela, Kaparrosora iritsi aitzin, hainbat tafallar ikus zitezkeen haurrekin batera errepide bazterretan, korrika egin eta ahalik eta lasterren oheratzeko asmotan.

Horregatik, gauez eta ilunpean euskarren alde haurrak ere korrika ikusten zirenez, areagotu egiten zen uneoro lasterketa jarraitzen zuten gehienek amorruta. Izan ere, mirari bat baino gehiago gertatu zen atzo gauean. Kamioitzarrak haurrak irenstear ikusi genituen, abiadura bizian, errepidean galduta, gauez, ilunpean. Noizbehinkako euri zaparradek ere ez zuten lagundu. Istripuen arriskua etengabea zen, eta Korrika inolako laguntzarik gabe zegoen. Ez udaltzainik, ez polizia foralik

OSKAR MONTERO
Haur bat lekukoarekin, Ariben.

eta ez ezer. Beraien bizitza arriskuan jarritz, egoera ahal zuten moduan bideratzen saiatzen ziren borondate oneko antolatzailleak soilik ageri ziren. Beste behin ere, lotsagarria, zinez, foru erkidegoko agintarien jarrera. Salaketa jartzeko modukoa.

Arriskuak arrisku eta euri zaparradak euri zaparrada, ordea, Kaparrosora eta Erriberitik igaro zen lekukoa, dozenaka lagun oihuen artean. Tafallako sarreran, Guardia Zibilaren kasernaren atarian, presoan aldeko oihuak herriko suhiltzaileek Korrikari egindako ongi etorri zatatsua erekin nahastu ziren, eta metro batzuk aurrerago iritsi zen eromena. Ehunka eta ehunka euskaltzalek lagundu baitzioten lekukoari herriko karriketan barrena. Jendetza handia zen. Herriari itzulita eman eta lasterketarekin batera San Martin Unx bidean gora korrika jarraitu zutenak, ordea, tarteka esku bateko eskuekin konta zitezkeen. Nekea agerikoa zen, kilometroek gero eta luzeagoak ziruditen, ez zen erraza aurrera egitea, baina beti agertzen zen lekukoa hartuko zuen norbait. Inoiz baino indartsuago, aurreruntz, etengabe, Nafarroa osoa euskaldundu arte...

Unibertsala bere lurrean

PABLO MANDAZEN. 'Euskaldun unibertsalak' eraman zuen lekukoa

Iñaki Petxarroman | GARRALDA

Jantzirik ederrena jantzi zuen Garraldak Korrikari ongi etorria emateko, Aezkoako gainerako herriek bezala. Azken mendean herriak eman duen semerik oparoenetakoak hartu zuen lekukoa herrian, Pablo Mandazen Venezuelan 60 urtez goiti eman duen garraldarrak. «Ilusioz, poz handiz parte hartuko dut Korrikan, eta erreazio sentimendu batek gidaturik euskaldunoi egin ziguten guztiaren aurrean», adierazi zien hedabideei lekukoa jaso baino minutu batzuk lehenago. Korrikaren petoa jantzirik joan zen 88 urte gizona herrian zehar, ehundik gora aetzen aitzinean. «Moztu nahi zizkiguten sustraiak indartzen lan egin behar dugu, sako-nagoak egin daitezen, gero gure herriaren askapenerako fruituak eman ditzaten». Eta

OSKAR MONTERO
Pablo Mandazen, lekukoarekin Garraldan.

PABLO MANDAZEN

'Euskaldun unibertsal' izendatu berria

«Gure nortasuna berresteko, sendotzeko, balio du Korrikak»

horretarako guztiz derrigorrezkoa da euskara, Gines anaiaren iritziz, euskara baita Euskal Herriaren arima bere ustez. «Eta ezin gaitezke libre izan arima askatu gabe». Korrikaren garrantzia nabarmendu zuen: «Gure nortasuna berresteko, sendotzeko, balio du Korrikak». Eta hizkuntzak ematen dio Euskal Herriari nortasuna, horretan ez du dudarik: «Garen bezalakoak izan behar dugu, eta ez besteen zentzu gabeko imitazio bat».

Euskaraz mintzatzeko ez du erraztasunik, nahiz eta poliki-poliki, solasteko gai den. Venezuelan igarotako urteetan erabili ez izanak badu eraginik horretan. Eta baita ere euskara debekatua izan zela urte askotan bere lurrean. «Orain badirudi bide beretik jo nahi dutela». Baina lan gaitza izango dute euskararen etsaiek, ikusita atzo Aezkoan eta Pirinio osoan Korrikak jaso zuen sostengu ikaragarria. «Nola botako gaituzte lur honetatik, 25.000 urtetik goiti daramatzagu-eta hemen». Eta gazteak dira oinarria: «Bere lurrean, bere kultura, sustraitzen ez den gazte-riak inoiz ez du nortasunik izanen». Ez da hori Aezkoaren kasua, eta Mandazeneke zuen zorian aurpegia lekukoa eramatean, horren islarik garbiena da.

KAFE, TE ETA TISANA KONTUAN
INON BAINO AUKERA ZABALAGOA

Gourmet

AUTONOMIA K, 12 - TEL.: 943 46 49 35 - DONOSTIA

TXINGUDI IKASTOLA

Eskolatik, etxetik, ...
Irten eta alde,
Irungo karrikeetan
Zer dabilen galde,
Erantzuna emango
dizute debalde:

TXINGUDI ikastola
KORRIKAREN alde!

Jaizubia auzoa z/g - 351 P.k. - Tel.: 943 66 70 55 - Faxe: 943 61 91 85
E-mail: 012338aa@hezkuntza.net - 20300 IRUN